

2011KO EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA

Lehen Hezkuntzako 4. Maila

2010-2011 ikasturtea

PROTOKOLOA

AURKIBIDEA

Nobedadeak

- A. Probak entregatzea eta zaintzea**
 - B. Ikasleak salbuesteko irizpideak**
 - C. Probak betetzea**
 - D. Aplikazio fasea prestatzea**
 - E. Aplikazioa**
 - F. Probaren egunean bertaratu ez diren ikasleak**
 - G. Ingeles probarako berariazko jarraibideak**
 - H. Probak aplikatzeko egutegia**
 - I. Proben zuzenketa**
 - J. Datuak sartzea**
 - K. Txostenak eskuratzea**
 - L. Ikasleek egindako probak gordetzea**
 - M. Eskerrak ematea**
-
- 1. eranskina: Salbuespenen erregistroa**
 - 2. eranskina: Egutegia**

Ondoko jarraibideak ezarri dira, bermatzeko probak ikastetxe guztietan kontrolpean eta modu berean aplikatzen, zuzentzen eta erregistratzen direla.

Ebaluazio honen aplikazio, zuzentze, grabatze eta informatze lanean zuzenki inplikaturik dauden zuzendaritzako kide eta irakasleek behar besteko aurrerapenez ezagutu beharko dituzte jarraibide hauek, eta praktika eraman.

Nobedadeak

- 1- **Datuak sartzeko eta txostenak erdiesteko Educa aplikazio informatikoa erabiliko dute ikastetxe guztiek.**
- 2- **Ikaslearen txostenak informazio gehiago ere badu: *puntuazio zuzena, puntuazio hori egokitua batez bestekoa 500 eta DT 100 dituen eskalara eta haren grafikoa.***
- 3- **Ikastetxeko emaitzen txostenak ondoko informazioa du: *puntuazio maiztasunen grafikoa.***
- 4- **Ikastetxe guztiek izanen dute sarbidea txostenetara zuzenean eta maiatzaren bukaeran.**

A- Probak entregatzea eta zaintzea

1. Joan den urteko prozedurari jarraituko diogu:

- a) Lizarra, Lekaroz, Tafalla eta Tuterako ILZtara atxikiriko ikastetxeek probak haiei dagokien ILZren egoitzan jasoko dituzte, **2011ko apirilaren 18, 19 eta 20an.**
- b) ILZ horietara atxikiriko ikastetxeren batek Iruñean jaso nahiko balitu, posta elektronikoz jakinarazi beharko dio **Ebaluazio Atalari, martxoaren 30a baino lehen.** (evaeduc@navarra.es)
- c) **Iruñeko ILZri** atxikiriko ikastetxeek probak Hezkuntza Departamentuan jasoko dituzte, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuan (tarteko solairua), **2011ko apirilaren 18an eta 19an, 8:30etik 14:30era.**

2. Behin ikastetxean, **proba koadernoak giltzapean gordeko dira, sekretupekoak direla bermatuz.**

3. Zuzendariak aplikatzaileei proba bakoitzean beharko diren koadernoen kopuru zehatza emanen diete, **gehienez ere proba hasi baino ordubete lehenago.**

Koadernoak paketatuta egonen dira, eta proba hasteko unean irekiko dira.

4. Aplikatzaile eta zuzentzaileek erabat isilpean gordeko dute proben edukia, maiatzaren 20ra arte. Egun horretatik aitzina probak aske eta irakasleendako eskuragarri geldituko dira.

B- Ikasleak salbuesteko irizpideak

1. Proba hauek **Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoan dauden ikasle guztiek** egin beharko dituzte. Salbuespena izanen dira ondoko irizpideren batengatik proba egin ezin dezaketenak:

- a) Hezkuntza sisteman sartu berriak izanik (duela ikasturte bat baino gutxiago), gaztelania (edo, kasuan kasu, euskara) ezagutzen ez dutelako.
- b) Mugitzeko edo zentzumenezko ezgaitasuna, proba egitea galarazten duena.
- c) Ezgaitasun psikiko edo intelektuala, NHBBZk erroldaturikoa, proba egitea galarazten duena.

Ikastetxearen (zuzendari-orientatzaile-tutorearen) irizpidearen arabera aurrez ikusi eta aplikatu beharko dira, hezkuntza premiak izanik, proba egiteko erabateko ezintasunik ez duten ikasleendako egokitzapenak. Egokitzapenak hauek izan daitezke: letra tamaina handitzea, denbora gehiago ematea. Kasu honetan desberdindu eginen da denbora-luzapenean egindakoa.

2. **2011ko apirilaren lehen hamabostaldian**, tutoreek begiraturiko dute ikasleren bat salbuetsi behar ote den aipaturiko irizpideen arabera, eta egokitzapenak aplikatu behar ote diren. Salbuetsitako ikasleren bat badago, **I. eranskineko salbuespen erregistroa** beteko da.

3. Aipaturiko irizpideak aplikatzearen ondorioz salbuesten diren ikasleak ikasgelan egon daitezke probaren egunean, eta proba bera ere "egin" dezakete. Kasu horretan, tutoreak emaitzak testuinguruan jarri beharko ditu. Ikastetxeak ziurtatzen badu ikaslea salbuetsita dagoela, ez da kontabilizatua izanen ikastetxeko emaitzetan.

C- Probak betetzea

1. Probak ahal dela **boligrafoz** beteko dira.

2. Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoan **ezin izanen dira erabili kalkulagailuak probetan**.

3. Zirriborro papera:

- Matematikako gaitasun proban ikasleek orri zuriak erabili ahal izanen dituzte eragiketetarako, baina oharrak ebaluazio koadernora pasa beharko dituzte, galderak irekiak direnean eta urratsak edo planteamenduak eskatzen direnean; ez dira zirriborro orriak jasoko.
- Era berean, ingeleseko proban ikasleek zirriborro papera erabili ahal izanen dute probaren lehen zatian oharrak hartzeko (*Listening* edo audio grabazio bat entzutea).

D- Aplikazio fasea prestatzea

1. Zuzendariak Protokolo hau aplikatzaileen esku utziko dute, aplikatzen hasi baino 72 ordu lehenago, gutxienez. Baina egokiena zera da, ikastetxean lan egitea aurrez ikusitako ebaluazio honen plangintzaren testuinguruan.
2. Arreta berezia jarri behar zaio ingeles probaren aplikaziorako jarraibideei: soinu erreproduzīgailua nola erabili.
3. Tutoreek ikasleentzat lana prestatuko dute, proba bukatu ahala lanean jarrai dezaten, ikaskideak molestatu gabe.
4. Ikastetxeek egokitzat dituzten informazio eta motibazio neurriak hartuko dituzte, normala edo ohikoa den lan giroa sortzeko.

E- Aplikazioa

1. Une horretan ebaluatzen ari diren irakasgaia ematen ez duen ikastetxeko zeinahi irakaslek egin dezake proba. Zehazki, ingeles proben aplikazioa **ez du** irakasgai horretako espezialistak egingen.

2. Aplikatzaileak konpromisoa hartuko du Protokolo honetan dauden jarraibideak fideltasunez jarraitzeko, eta galderen edukiari buruz deus ez esateko. Ez du eman edo egin behar probaren edukiaren gaineko inolako argibiderik, zehaztasunik edo interpretaziorik.

3. Aplikatzaileak ikasleei esanen die proba hau egitea oso garrantzitsua dela, Nafarroako ikasle guztiak ari direla proba egiten, ahal bezain ongien egiten saiatu behar direla eta tutoreak ekainean emanen dizkiela emaitzak gurasoei. Sentsibilizazio lan hori oso garrantzitsua da ikasleen inplikazioa eta ahalegina sustatzeko, eta ikastetxean aurrez ikusitako laneko planaren arabera egin daiteke.
4. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die ikasgelan egon behar direla proba bukatu arte. Lehenago bukatzen badute, tutoreak proposaturiko lanak egin beharko dituzte, ikaskideen lana eten gabe. Aplikatzailea ikasleek egin beharreko lanaren jakitun izanen da, eta lan hori egiten dela zainduko du.
5. Aplikatzaileak zerrenda bat izanen du taldeko kide guztiekin, eta beste bat salbuetsita dauden ikasleekin. Zerrenda pasatuko du, bertaratu gabeak azpimarratuko ditu eta salbuetsita dagoen ikasleren batek proba egiten badu "Salbuetsia" idatziko du koadernoan, proba bukatzean.

6. Bermatuko du ikasleen mahaien artean behar besteko tartea dagoela, lana banakakoa izan dadin. Hori horrela dela bermatuko du, saio guztian zehar.

7. Behin dena ordenan dagoela, koadernoen paketea ireki eta koadernoak banatuko ditu. Azaleko datuak betetzeko esan ondoren, probaren koadernoan dauden jarraibideak irakurriko ditu, eta esanen die galdera irekiak daudela, eta baita ere itxiak, eta azken horietan erantzun bat hautatu behar dutela (A, B, C edo D). Esanen die, halaber, galdera irekietan erantzuna idatzi beharko dutela galderaren ondoren dagoen tarte librean, eta gogoan izan behar dutela matematika ariketetan urratsak edo planteamenduak idatzi behar dituztela, galderaren enuntziatuan hala eskatzen bada.

8. Maila orokorreko zalantzak argituko dizkie ikasleei, eta adieraziko die bakarrik egin beharko dutela lan, eta zerbait ulertzen ez badute, berriz ere irakurri beharko dutela, edo ondoko galderara pasatu. Probaren edozein unetan ikasleek berrikusi ahal izanen dituzte aurreko galderak.

9. Behin zalantza guztiak argitu ondoren, arbelean idatziko ditu probaren hasierako eta bukaerako orduak. Probarako esleituriko denbora **60 minutu da**. Hori denbora erreala edo baliagarria da: "une honetatik aurrera hasiko gara kontatzen probako 60 minutuak."

10. Behin proba hasita, aplikatzaileak ez du inongo argibiderik edo erantzun berririk emanen, eta galderarik egiten badiote, galdera berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko gomendatzera mugatuko da.

11. Bukatzeko 10 minutu falta direnean horren berri emanen du.

12. Denbora bukatzean, aplikatzaileak koaderno guztiak jasoko ditu eta ikastetxeko jarraibideei lotuko zaie, probak zuzentzeko eta bertaratu gabeko ikaslerik izatekotan, haien errekuperazioa egiteko.

13. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak proben aplikazioaren kalitate kontrola egingen du, ikastetxeen ausazko lagin batean. Kontrolaren xedea izanen da protokoloa jarraitu dela egiaztatzea.

F- Probaren egunean bertaratu ez diren ikasleak

1. Ebaluazio hau Lehen Hezkuntzako 4.eko ikasle guztiek egin behar dute, eta beraz, proben egunean bertaraten ez direnek lehenbailehen egin beharko dute, ikastetxe bakoitzak aurrez ikusitako berreskuratze planaren arabera.

2. Emaizak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira, aurrerago aipatzen diren epeetan.

G- Ingeles probarako berariazko jarraibideak (English Literacy)

Aurreko jarraibideez gainera, ondokoak aplikatuko dira:

1. Aplikatzaileak, gutxienez ere 48 ordu lehenago, egiaztatu egingen du soinu erreproduzigailua eta CDa behar bezala dabilzala: *ikasgelako toki guztietatik ongi entzuten da; entzun-ariketa birritan dago grabatua, tarteko etenaldiekin..*
2. Aplikatzaileak azalpen guztiak taldeko irakas-hizkuntzan emanen ditu; G/A ereduko ikasleei gaztelaniaz eta D ereduko ikasleei euskaraz.
3. Probako koadernoaren azalean eskatzen diren atalak bete ondoren, ikasleei esanen die probak hiru zati dituela:
 - a) LISTENING (entzuketa) Birritan entzunen dira ingelesezko hiru entzunaldi labur, eta ondoren entzundakoaren gaineko 8 galderei erantzunen zaie.
 - b) READING (irakurketa): Bi testu irakurriko dituzte ingelesez, eta irakurritakoarekin loturiko galderei erantzunen diete.
 - c) WRITING (idazketa): Testu bat idatziko dute ingelesez, koadernoaren atal horretako jarraibideei jarraikiz.
4. Ondoren, azalduko du LISTENING atala (entzuketa) horrela egingen dela:
 - a) 2 minutu izanen dituzte koadernoko lehen 8 galderak irakurtzeko, eskatzen zaienaren alde aurreko ideia bat egin dezaten.
 - b) Ondoren birritan entzunen dute ingelesezko entzun-ariketa (3 zati ditu).
 - c) Entzunaldien arteko etenak 50 eta 60 segundokoak dira. Tarteko etenetan galderak erantzuten hasi daitezke, eta horrela, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri errepara diezaiokete.
 - d) Entzunaldietan oharrak hartu ahal izanen dituzte, zirriborro orrian.
 - e) Behin entzun-ariketa bukatuta, ikasleek badakizkiten erantzunak idatziko dituzte, eta probarekin jarraituko dute, haien erritmoan.

Ondoko taulan aplikatzaileari esaten zaio zeintzuk diren LISTENING (entzuketa) jarduerak eta denborak.

Ikasleen jarduera		Iraupena, segundotan	Oharrak
Lehen 8 galderak irakurtzea		120	Aplikatzaileak denbora kontrolatuko du: 2 2 minutu
LISTENING 1	Entzuketa	70	Fase hauek automatizaturik daude CDan. Aplikatzaileak ez du deus ere egin behar.
	Etena eta erantzuteko denbora	50	
	Entzuketa	70	
	Etena eta erantzuteko denbora	60	
LISTENING 2	Entzuketa	65	
	Etena eta erantzuteko denbora	50	
	Entzuketa	65	
	Etena eta erantzuteko denbora	50	
LISTENING 3	Entzuketa	90	
	Etena eta erantzuteko denbora	50	
	Entzuketa	90	
Entzunaldiaren bukaera eta erantzuteko denbora			

Aplikatzaileak galdetuko du ea zalantzarik ba ote den probaren gainean, hiru atalen gainean, egin behar dutenaren gainean... Zalantza horiek argituko ditu, aurreko urratsak errepikatuz, ikasle guztiendako erabat argi gelditu arte.

5. Zalantzak argitu ondoren: arbelean idatziko du hasierako eta bukaerako denbora, kontuan izanik proba egiteko 60 minutu daudela eta denbora une horretan bertan hasiko dela.

Esanen die lehen 8 galderak irakurtzeko 2 minututan (ordulariarekin kontrolatuko ditu). Denbora hori pasatu ondoren, audio ekipoa martxan jarriko du.

6. proba bukatzeko 20 minutu falta direnean, ikasleei denbora hori falta dela gogoraraziko die, eta iradoki, halaber, idazketa ariketarekin hasteko (WRITING).

H- Probak aplikatzeko egutegia

Proba guztiek dute 60 minutuko iraupen erreala, eta ondoko egutegiaren arabera eginen dira.

Probak Lehen Hezkuntzako 4.a				
Astelehena Maiatzaren 2a	Asteartea Maiatzaren 3a	Asteazkena Maiatzaren 4a	Osteguna Maiatzaren 5a	Ostirala Maiatzaren 6a
-	Matematikako gaitasuna	Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz	Gaitasuna ingelesean	Irakurtzeko gaitasuna euskaraz (B/D ereduak soilik)

I- Proben zuzenketa

1. Irakasle zuzentzaileak ondoko hauek dira:

Probak	Zuzentzailea
Gaitasuna irakurmenean	Taldeko tutorea edo ikastetxeko beste irakasle bat
Gaitasuna matematikan	
Gaitasuna ingelesean	Ingelesean espezialista

2. Proba bakoitzak **zuzenketa koaderno** bat du, eta bertan zehazten dira galdera irekien zuzenketa irizpideak. Koaderno hauek ikastetxeko zuzendariaren eskura izanen dira probaren egunean, pasahitzarekin, ondoko helbidean:

<http://www.educacion.navarra.es/portal/Informazio+interesgarria/Ebaluazioa/Nafarroako+Ebaluazioak/Haur+Hezkuntza+eta+LH>

Galdera itxiek ez dute zuzenketarik behar; aplikazio informatikoaren bidez puntuatuko baitira. Galdera irekietan dagokion puntuazioa/kodea jarriko da (0, 1, 2...) koadernoko erantzuna zuzenketa irizpideekin erkatu ondoren. Puntuazio/kode hori zuzentzaileak idatziko du ikaslearen koadernoan.

3. Epeak. **Zuzenketa** maiatzaren 9tik 13ra doan astean eginen da. Ahal bezain laster egitea gomendatzen da, beranduenez **maiatzaren 13rako**.

J- Datuak sartzea

1. A, B, C, D markaturiko erantzunak eta 0, 1, 2... zuzenketa kodeak, zuzenduriko koadernoetan daudenak, Educa aplikazio informatikoan dagokien laukitxoetan sartuko dira.

Jarraibideen gidaliburu labur bat igorriko da lehen aldiz datuak aplikazio informatikoaren bidez sartzen dituzten ikastetxeetara.

2. Errendimendu probetako **datuak sartzea maiatzaren 16tik 20ra** egingen da. Epe horretan agertuko diren zalantzak kontsulta daitezke Ebaluazio Atalaren posta elektronikoaren bidez eta ondoko telefonoen bidez: 848 426598 eta 848 426554. (evaeduc@navarra.es)

3. Salbuetsita dauden ikasleak aipaturiko erregistroetan identifikaturik geldituko dira, "salbuetsita" zutabean dagokien laukitxoa markatuta. Datu hauek ez dira kontuan hartuko ikastetxeko estatistiken kalkuluan.

4. Epeak betetzea garrantzitsua denez, ikastetxeko zuzendariari eskatuko zaio zain dezala aipaturiko faseak eta epeak betetzen direla. Ebaluazio faseak jarraibideei jarraikiz egiten badira, Ebaluazio Atalak aukera du horien bilakaera gainbegiratzeko eta ikastetxeetako kontsultei hobeki erantzuteko.

K- Txostenak eskuratzea

1. **Maiatzaren 30**etik aurrera ikastetxeek txostenak eskuratuko dituzte, Educa aplikazio informatikoaren bidez.

2. *Ikaslearen txostena*. Ondoko informazioa du: ebaluatoriko gaitasun bakoitzean erdietsitako goreneko maila, gaitasun mailen definizio orokorra, *erdietsitako puntuazio zuzena, puntuazio hori egokitua batez bestekoa 500 eta desbideratze tipikoa 100 dituen eskalara eta puntuazio horren irudikatze grafikoa.*

Txosten honen xedea da ikasle bakoitzarendako hobekuntza neurriak hartu ahal izatea erraztea. Atal batek *oharrak* izena du; tutoreak berau erabil dezake mezuren bat idatzi nahi badu.

Familiek seme-alaben emaitzak ezagutzeko eskubidea dute. Eskubide hori betetze aldera, txosten honek ikastetxeei tresna bat eskaintzen die, tutoretza lanaren testuinguruan. Ekainerako prest egonen da, familiei emateko.

Aplikazio informatikoak aukera ematen du taldeko txosten guztiak artxibatze eta paperean inprimatzeko, modu erosoan.

3. Ikastetxeko emaitza orokorren txostena. Ikastetxeek, Educa aplikazio informatikoaren bidez, bertako ikasleek erdietsitako emaitzen **txosten orokorra** eskuratuko dute, Nafarroako batez besteko emaitzekin erkatuta. Txosten honen edukia joan den urtekoaren antzekoa izanen da. Nobedade gisa, aurten maiztasunen grafiko berri bat jarri dugu. Bertan ikasleen banaketa irudikatzen da, puntuazioaren eta ikastetxearen arabera, eta Nafarroa guztirako emaitza. Grafiko horrek aukera ematen digu ezagutzeko ikasleen banaketa maila bakoitzean, zenbat dauden behean, zenbat erdian eta zenbat goian. Hori interesgarria da, mailak puntuazio tarte zabaletan definiturik daudelako.

Datu estatistikoez gain, sarrera bat ere badakar, irakurketa eta barne azterketa errazteko. Ikastetxeek zuzenean joko dute txostenera eta haiek izanen dira txostenak inprimatzearen edo euskarri elektronikoan kopiatzearen ardura izanen dutenak. Informazio hau, ikastetxearen testuinguruari behar bezala egokituta, Eskola Kontseiluari aurkez dakioke, barne azterketaren ondoriozko hobekuntza lerroekin batera.

L- Ikasleek egindako probak gordetzea

Ikasleek bete dituzten ebaluazio koadernoak ikastetxean geldituko dira 2011ko azaroaren 30a arte, eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku utziko dira, zuzenketa irizpideen baliozkotasuna egiaztatzeko azterlanak egin behar badira, edo jakiteko zuzenketa irizpideak modu homogineoan jarraitu ote diren.

M- Eskerrak ematea

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkie ebaluazio zeregin honetan arituko diren zuzendari, tutore, irakasle, orientatzaile, zerbitzuetako langile, ikasle eta gurasoei.

1. ERANSKINA

SALBUESPENEN ERREGISTROA (ikastetxean gordeko da)

Ebaluazio diagnostikoa - Lehen Hezkuntzako 4.a
2010-11 ikasturtea

Ikastetxea:

Salbuespenen erregistroa (ikastetxean gordeko da)		
Taldea	Izen-deiturak	Arrazoa (A, B, C)
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		
10.		

- A.** Hezkuntza sisteman sartu berriak izanik (duela ikasturte bat baino gutxiago), gaztelania (edo, kasuan kasu, euskara) ezagutzen ez dutelako.
- B.** Mugitzeko edo zentzumenezko ezgaitasuna, proba egitea galarazten duena.
- C.** Ezgaitasun psikiko edo intelektuala, NHBBZk erroldaturikoa, proba egitea galarazten duena.

Jarduera garrantzitsuenen egutegia

2011ko APIRILA				
Al	As	Az	Og	Or
				1
4	5	6	7	8
11	12 Salbuespenen erregistroa	13	14	15
18 Probak ILZn edo Hezkuntza Departamentuan jasotzea	19 Probak ILZn edo Hezkuntza Departamentuan jasotzea	20 Probak ILZn edo Hezkuntza Departamentuan jasotzea	21	22
25	25	27	28	29

2011ko MAIATZA				
Al	As	Az	Og	Or
2 CDak probatzea	3 Probak aplikatzea	4 Probak aplikatzea	5 Probak aplikatzea	6 Probak aplikatzea (soilik B eta D)
9 Zuzenketa	10 Zuzenketa	11 Zuzenketa	12 Zuzenketa	13 Zuzenketa bukatzeta
16 Erregistroa Educan	17 Erregistroa Educan	18 Erregistroa Educan	19 Erregistroa Educan	20 Datuen erregistroa bukatzeta
23	24	25	26	27
30 Txostenak eskuratzea	31			